BESTELAKO XEDAPENAK

LEHENDAKARITZA

1104

6/2013 DEKRETUA, otsailaren 20koa, Lehendakariarena, Lan Harremanen Kontseiluko burua izendatzeko dena.

Lan Harremanen Kontseiluaren otsailaren 23ko 4/2012 Legearen 12.1 artikuluak dioenez, Jaurlaritzako lehendakariak izendatu eta kenduko du kargutik Kontseiluko burua, Kontseiluko kideei entzun ondoren. Artikulu horrek, halaber, bere kargu-aldiak bost urte iraungo duela ezartzen du eta, gehienez, beste agintaldi baterako aukeratu ahal izango dela.

Urtarrilaren 21eko 3/2008 Dekretuaren bidez Lan Harremanen Kontseiluko burua izendatu zen. Agintaldia iragan denez, eta Kontseiluko kideei entzun ondoren, hauxe

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.– Tomás Arrieta Heras jauna Lan Harremanen Kontseiluko buru izendatzea.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2013ko otsailaren 20an.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.